

Noaua!!

H A M A B O S K A R I A

2000ko irailaren 15a V.urtea

Usurbil, 96. zenbakia




Aginaga Kontxan garaile
1957 eta 1960an

Aizpurua



*Zure mahaia ondo
hornitu nahi baduzu
gurean duzu aukera!*

Telesforo Ardoak



Kale Nagusia, 25 Telf. 943 36 12 20

Egin zaitez

Noauako bazkide

Merkeago afaldu nahi baduzu, edo eta erosketak merkeago egin nahi badituzu hona hemen zure aukera

%10eko
beherapena



Aldatz kioldenda
Mahuka
jantxidenda
Pauma Haur
jantziak
Truke jantxidenda
Usurbil optika
denda
Intza ileapaindegia

2.500 pezetatik
gorako otordua
eginez gero
%10eko
deskontua

Antxeta jatetxea
Patri jatetxea
Zumeta jatetxea



TXIMINIA ALTZARIAK



ALTZARIAK AUKERAN

1.000 metroko erakusketa- Prezio harrigarriak

Punta-puntako markak %50ean: Altzari-trinko, lastaira eta
lastaira-azpikoen aukera haundia

Sofa eta besaulkiak, logelak, aulkiak, mahaiak

Ehundaka altzairu %50ean

Mailatu txikiekin eta gabekoak

Osinalde poligonoa

Tel.: 943 37 09 66

Txerrimunik ordainetan



Enezek abuztuaren 17an, **Xubanek** 25ean eta **Iñakik** 28an bete zituzten urteak. Atzerapenarekin bada ere zorionak eta urte askoan familiako guztien partez.



Ander, abuztuaren 24an 4 urte bete zenituen. Zorionak eta muxu asko etzekoen partez. Askok maite zaitugu.



Zorionak Leire! Abuztuaren 18an 4 urte bete dituzenez zorionak eta muxu handi bat etzekoen partez.

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarte hau erabili dezakete. Ekarki jarri beharreko testua eta argazkia.

**Hurrengo alea: irailaren 29an
Ekartzeko azken eguna: irailaren 22an**

Jaiotzak

Hildakoak

2000-08-28
Teresa Salsamendi Sagarzazu
78 urte
kalezar

Olatz Allur Maiz
(2000-07-09)
Kaleberri

Ainhoa Illarramendi Jauregi
(2000-07-10)
Urdaiaga

Marta Loidi Urkizu
(2000-07-21)
Zubieta

Nahia Arbizu Zabala
(2000-07-31)
Kaleberri

Alejandra Unanue Valero
(2000-08-12)
Kalezar

Nagore Lertxundi Olazabal
(2000-08-13)
Kaleberri

Ane Azkonobieta Irazusta
(2000-08-15)
Aginaga

Jon Galardi Lizarraga
(2000-08-20)
Kaleberri

Ianire Unanue Segurola
(2000-08-21)
Kaleberri

Erika Moriana Utrera
(2000-08-31)
Santuenea

EUSKO TRENBIDEAKEN UDABERRIKO AUTOBUS ORDUTEGIA

ASTEGUNETAN

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.40	08.05	08.25	06.45	07.05	07.30
08.00	08.25	08.35**	07.15	07.35	08.00
08.40	09.05	09.25	07.45	08.05	08.30
09.00	09.30	09.40 *	08.15	08.35	09.00
09.40	10.05	10.25	08.45	09.05	09.30
10.40	11.05	11.25	09.20**	09.30	10.00
11.40	12.05	12.25	09.45	10.05	10.30
12.00	12.25	12.35**	10.20*	10.30	11.00
12.40	13.05	13.25	10.45	11.05	11.30
13.00	13.30	13.40 *	11.45	12.05	12.30
13.40	14.05	14.25	12.45	13.05	13.30
14.00	14.30	14.40**	13.20**	13.30	13.55
14.40	15.05	15.25	13.45	14.05	14.30
15.00	15.25	15.40*	14.20*	14.30	15.00
15.40	16.05	16.25	14.45	15.05	15.30
16.40	17.05	17.25	15.20**	15.30	15.55
17.40	18.05	18.25	15.45	16.05	16.30
18.00	18.30	18.40*	16.20**	16.30	17.00
18.40	19.05	19.25	16.45	17.05	17.30
19.00	19.25	19.35**	17.45	18.05	18.30
19.40	20.05	20.25	18.45	19.05	19.30
20.00	20.30	20.40*	19.20*	19.30	20.00
21.00	21.25	21.45	19.45	20.05	20.30
22.00	22.30	22.50	21.15	21.35	22.00

* Orioraino ** Alaraino

* Oriotik ** Aiatik

ASTEBURUTAN

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.30	07.55	08.15	06.45	07.05	07.30
08.30	08.55	09.15	07.45	08.05	08.30
09.30	09.55	10.15	08.45	09.05	09.30
10.30	10.55	11.15	09.45	10.05	10.30
11.30	11.55	12.15	10.45	11.05	11.30
12.30	12.55	13.15	11.45	12.05	12.30
13.30	13.55	14.15	12.45	13.05	13.30
14.30	14.55	15.15	13.45	14.05	14.30
15.30	15.55	16.15	14.45	15.05	15.30
16.30	16.55	17.15	15.45	16.05	16.30
17.30	17.55	18.15	16.45	17.05	17.30
18.30	18.55	18.15	17.45	18.05	18.30
19.30	19.55	19.15	18.45	19.05	19.30
20.30	20.55	20.15	19.45	20.05	20.30
21.30	21.55	21.15	20.45	21.05	21.30
22.30	22.55	23.15	21.45	22.05	22.30

**Argitaratzailea**

Noaúa! Kultur Elkarte
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail: noaúa.k.e@euskalnet.net
Web orria:
<http://www.topagunea.com/noaúa/>

Kazetarien koordinatzailea

Josu Aranberri

Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea

Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Manuel Begiristain, Eukene Kamino, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieto, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez.

Eredakzio Kontseilua:

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Gari-koitx Udabe, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta.

Maketazioa eta diseinua

Olatz Goenaga.

Dokumentazioa

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua, Leire Mujika, Leire Unanue eta Nagore Gonzalez

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaúa! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaúa! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

Azala:

Alejandro Tapia, bere etxe ondoan duen tailerrean

Zer irizten?

Herriko piper ekoizleen artean pipermin lehiaketa irailaren 24an

Datorren irailaren 24an piper eguna izango da Usurbilen. Piper denboraldia amaitzear badago ere, Usurbilen piper-rak duen garrantziaz jabetuta, honen inguruko egun bat antolatzea egoki ikusi du Nekazaritza Aholku Batzarrak.

Herriko piper ekoizleen artean egingo den piper lehiaketa izango da eguneko ekitaldirik garrantzitsuena. Oraingoz herriko 11 piper ekoizlek txapelketan parte hartuko dutela ziurtatu dugu, baina beste bospasei ziurtatzeke daude oraindik. Hauek dira oraingoz lehiaketan parte hartuko dutenak:

- Pagola
- Txantxon
- Orbegozo
- Urda
- Labaien
- Ortelanonekoak
- Arrozpide
- Agirre
- Matxain
- Tximua

Hasiera batean Euskal Herri mailako lehiaketa egiteko asmoa genuen, baina Eusko Labelekoek ez digute ekoizleen zerrendarik eman (konfidentziala omen da) eta ezinezkoa izan zaigu.

Txapelketan parte hartzeko baldintza bakarra bi kilo pipermin prexkua ekartzea da, gero guk jarriko ditugun ontzietan ikusgai egongo baitira bakoitzak ekarritako piper-rak. Epaimahaiak goizean zehar zenbait irizpide jarraituz (zaporea, itxura, kolorea,


labelaren ezaugarriak...) zein den jakin araziko du 13.30ak inguruan.

Ondoren, sukaldaritzan piperminaren erabilpena zabaldu asmoz, zazpi bat pintxo ezberdin prestatzen ikasteko aukera izango da. Pintxoiez gain, txapelketan aurkeztutako piper frijitua jateko aukera ere izango dute hara gerturatzen diren guztiek.

Ondoren, herriko lehenengo piper ekoizleari omenaldi-txo bat egingo zaio. Kontsuelo lbargoien da bera, Illunbe baserrikoa.

Omendua eta txapelketan aurkeztutakoek Patri jatetxean bazkaria izango dute. Herriarrentzat ere irekia da eta txartelak jatetxean bertan egongo dira salgai 3000 pezetan.

Lehenengo urtea izanik, eta daturik ez dugunez, agian ekoizleren bat gonbidapenik gabe geratuko zen. Horregatik Noaúa! aldizkariaren bitartez gonbidapena luzatu nahi diegu barkamena aldeztatik aurretik eskatuz.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herra!



Kontsuelo Ibargoien

Olarrondon jαιο eta hazi zen, baina ezkontzean Txokoalderako bidea hartu zuen, Illunben bizi baita orduz geroztik. Guk jakin ahal izan dugunez, Kontsuelo eta bere gizon zenak, Joxe Aginagak, landatu zituzten orain edonon jan daitezkeen Usurbilgo piperrak.

Nola hasi zineten piperrekin?

Nire gizonari Hernaniko ferira joatea gustatzen zitzaion. Nik ez dakit nondik hasi zen piper landarea ekartzen, baina lehen saio hartan gindila luxe horia atera zitzaigun. Hura kendu genuen, eta oso gindila politarekin hasi ginen. Ez genuen asko jarri, baina piper ugari ematen zuen. Ezkondu eta berehala izan zen hura, duela 44 urte gutxi gora behera. Nik dakidala besteak piperrak landatzen geroago hasi ziren.

Zer egiten zenuten garai hartan piperrekin?

Ni Donostiara joaten nintzen esnea saltzera. Piperrekin zer egin ez genuen jakiten eta bezero batek Donostiako Alde Zaharrean piperrak saltzen aritzen zirela esan zidan. Honela, piperez betetako bi zaku koxkor eramaten nizkien. Ordaintzen zizkigutenez gu gustora eta beraien ere bai, gindila polita eramaten genuen eta.

Eta haiek zer egiten zuten piperrekin?

Soberano boteiletan ontziratzen zituzten. Soberano boteilak muturra zabala zuenez, han sartzen zituzten piperrak. Denborarekin modernizatzen joan ziren gauzak eta guk ere, pixkanaka pixkanaka piper sailak haunditu egin genituen.

Nola lortzen zenuten piper hazia?

Haseran Hernaniko feritik ekarri zuen nire gizonak, baina urte pare baten ondoren hazia etxean egiten hasi ginen. Hori bai, hiru urtetik behin aldatzen genituen landareak, orain bezela noski. Urte askoan berotegietan ere jarri izan ditugu piperrak.

Berotegietan ere bai?

Bai, baina lan asko ematen du berotegiko

piperrak. Bi edo hiru egunetan jaso beharra dago horko piperra. Jendea hasi zen honetan, baina orain ez dira asko ikusten. Batetik beroa ikaragarria da, bestetik tantaketak, lurretik botatzen den ura, behar den bezela jarri behar dira eta gainera egunero gainean egon beharra dago.

Piperrak lan asko ematen al dute ba?

Gainean egon beharra dago. Errazena landareak jartzea da, baina gero piperrak bildu behar dira, eta ez nolanchi gainera. Luzera jakin batekoak izan behar dute, eta ez haundiak. Haundiegia direnak guk behintzat bota egiten ditugu. Ondo pentsatu behar da piperrekin hasi baino lehen, biltzerakoan eta gainean egon behar baita. Belar txarrak kendu...

Oraindik piperrekin jarraitzen al duzu?

Astean ia 200 kilo piper ateratzen ditugu behintzat eta! Landatu egiten ditugu, baina gero jasotzerakoan izaten ditugu kontuak. Nire alabak, ni neuk eta Donostiako bikote batek jasotzen ditugu. Alabak esaten zidan gehiago jarri behar genituela, baina gero nork bildu behar du? Nik kaxa baten gainean jarri eta ttaka-ttaka ederki biltzen ditut. Piperrak ematen duten dirua behar da, baina diru hori irabazteko lan haundia egin beharra dago.

Udaran bildu behar piperrak gainera.

Bai, baina nik tamaina hartua daukat. Goizean zortziretako joan eta hamaikak aldera gelditu. Bazkaldu siesta egin eta seirak aldean berriz ere piperrak biltzera arratsaldeko zortziretako aldera arte. Jarri zaitez eguerdiko eguzki gorritan piperrak biltzen... ez da ederra izaten.

Josu Aranberri

XABIER EDARITEGIA

Etor zaitez,
eta dasta itzazu
Goierriko produktuak

X Idiazabal gazta
X Beasaingo odolkiak...



MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen
modako arropa guztia hemen aurkituko duzu

Etxebeste kalea, 3- III. 943 36 11 06

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



ESTRELLA

Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak
zure zerbitzurako

Zubiaurrenea, 10
Tf. 943 37 18 07- Fax.: 943 37 63 41

Mintzatzeko. Telebista ikusteko. Bertso
Herri osoan barrera ibili ahal izateko. S
Adiskide berriak topatzeko. Ele egiteko.
barregarriak kontatzeko. Lana aurkitze
Kantatzeko. Jaietan erabiltzeko. Herriko
Euskal Herria egiteko. Euskaraz bizitzeko
Bertsolariek esaten dutena ulertzeko.
izateko. Solas egiteko. Egunkaria irakur
Ele egiteko. Euskal literaturaz gozatzeko
Lana aurkitzeko. Barregarriak aurkitzeko
Kantatzeko. Jaietan erabiltzeko. Herriko
Herri osoan barrera ibili ahal izateko.
Bertsolariek esaten dutena ulertzeko.

Aukera paregabe

ETUMETA AIEK EUSKALTEKO



943 372 001



10:00-13:00



Irazu kalea 14 (front)



Aberea

IA

17:00-19:30

(oi ondoan)

dek

izena eman

USURBILGO ETUMETA EUSKARA IK

**MAILA GUZTIAK / TO
EGA ETA ALFABET
GURASO TALDEAK/GRUPOS**

- **Eskolak goizez, eguerdi
Clases por la mañana, m**
- **Udalaren laguntzari esker
Subvencionado por el ayuntamiento**

**MATRIKULA EPEA/PLA
Irailean/ Sep**

INFORMAZIOA ETA MATRIKULA

AEK EUSKALTEGIA IKASTAROAK

**OS LOS NIVELES
ATZE ikastaroak
PARA PADRES Y MADRES**

**, arratsalde eta gauez
mediodia, tarde y noche**

**langabetuentzat dohainik
al 100% para l@s desemplead@s**

**CO DE MATRICULA:
tiembre**

ETUMETA AEK 943 372 001

A large, stylized white logo consisting of the lowercase letters 'aek' in a cursive, rounded font. The logo is positioned in the bottom right corner of the page, set against a solid orange background that occupies the lower half of the image.

TXOKOALDE

Imanol Goenaga



Gure altxor txikia eta preziatua

Asteburu honetan, txakurra-
Arekin bueltaxka bat emate-
tea bururatu zitzaidan eta Irabi
bidea edo Erribera aukeratu
nuen horretarako. Aspaldian ibili
gabe nengoen paraje haueta-
tik, eta ibai ondoraino inguratu
nintzenezan segituan nabaritu
nuen ibai ertza duela urte
batzuk baino garbiagoa dago-
ela, ibai ertzean beti kusten
ziren plastiko mordoak desager-
tu direla.

Urak berak ere garbia dirudi,
gardena dago behintzat, eta
aurten ere hasi dira, azken urte
hauetan bezala, uherroi eta
koartzak azaltzen, negua
hemen pasatzeko asmotan.
Urterik urtera, gainera, gero eta
gehiago etortzen dira gure

ingurune honetara. Hori nahiko
ez balitz, etxeruntz bueltan nen-
torrela, hara non ikusten dudan
dortoka dotore bat enbor
baten gainean. Ez zen txikia, ez,
platera baten tamaina bazuen
gutxienez. Neu han nintzela
atzeman zuen
bezain pronto,
"blaut" uretara
jaurti zen eta han-
txe desagertu.

Paseoaren ondo-
rengo gogoetan
zera ondorioztatu
nuen; Txokoalden
ez dago ez Doña-
na bezalako parke
naturalik ezta
Pagoetarik ere,
baina baditugu

gure altxorak, txikiak izanagatik
preziatu izaten jarraitzen dute-
nak. Beraz, badugu zer zaindua
eta zer txukun mantendua,
"Oria bizirik" kanpaina martxan
jarri beharko genuke, eta ez da
lan makala, ez horixe!



KALEBERRI

Eneko Harreguy



Eragin eta eragin

Denbora geratuko duenik
ez dagoela! Oraintxe
geunden oporrak eta festak
noiz helduko ilusioarekin, eta
orain gaude lan egin behar eta
goiz jaikitzearen desilusioarekin
(jaiak izan ditugun gehienok
behintzat).

Uda zetorren heinean eta
oporretan pentsatuz norberak
bere ideiak, pentsamenduak,
planak zituen kaskezurrean. Ez
dakit zer egiteko asmoa, hara
joan eta hura ikusi hau eraman
eta hori ekarri beste hari lagun-
du eta hamaika egitasmoren
arteazkenik helburu bakarra:
ondo pasatzea eta zoriontsu
egitea, izatea. Askotan ikusi izan
ditut uda honetan ordulariak
eskumuturra apaintzeko apain-
garri gisa (bai, bai, zuek atera
kontuak!!). Niri ere agian norbai-

tek gustura leporatuko lidake
hauze bera, baina oker legoke,
ordularia hautsi eta ez baitut
joan den ez dakit zenbat egu-
netan konpondu (nirea ere...).

Eta ez dut pentsatu ere egin
nahi gurasoak kanpoan izan
dituenak ze ordu anabasak
izango zituen. Bejondeiola..jator
ibili bada...

Orain...orain bukatu da "ezer
ez egitearen" ordua. Orain kon-
tzianteak izan behar dugu lane-
ra edota ikastera itzuli behar
duguna (azkenetako kronika
batean gomendatzen nuen
egokitzen zaigun horretan gau-
dela ere beti, ahalik eta etekinik
handiena atera behar dugula;
ikastea dagokigula? ikasi; lana
egitea? lan egin; Jai? jai...). Ziur
jai egitea dagokigunean kon-
tzianteagoak garela lan egitea

dagokigunean baino...eta
horretan ere berdin-berdin
behar dugu kontziente.

Kontzientzia. Denok apur bat
gehixeago bagenu! Eta zerga-
tik ez saiatu kontzientzia gehia-
goko pertsonak izaten?

Kontzientzia, askotan galdu
izan den bezala, irabaz ere ira-
baz daiteke, baina horrek jada
lan gehiago eskatzen du, nor-
berak bere kontzientziari eten-
gabe eragin behar baitio. Kon-
tziencia, beraz, gure esku
dago, eta guk erabakitzen
dugu, gehienetan, kontzientzia-
ren zein mailatara iritsi; baina ez
beti, izan ere egoera gogorrek
latz gerta baitaitezke kontzien-
tziaren maila gorenari eusteko;
eragin eta eragin...eta kon-
tzienciaekin egin.

KALEZAR

Aldaketa haundia

Uda pasa ostean lanari ekin behar berriz ere eta hemen gatoz indarberrituta. Eguraldi beroak bukatuz doazen heinean, auzotarrak (batzuk, behintzat) hor ari dira heuren etxeak itxuratu eta txukundu asmotan.

Egun hauetan auzoko erdigunean hor ibili dira pintore batzuk etxe bakarren batzuen kanpoaldea margotzen. Kalezarrek aspaldi utzi zion zahar izateari eta orain gero eta berriagoa dirudi. Illarramendi aurreko bidea (behingoz) irekitzen dutenean, gainera, eroso geldituko da gure auzorako sartu-irteera. Etxe berriak ere


nahiko aurreratuta daude dagoeneko eta laister beste kalezartar batzuk ere izango ditugu, honetan ere garai bateko erdigunean zeuden 6-8 baserri haietatik auzo nagusi bat izatera pasa da Kalezar. A zer aldaketa urte gutxitan! Gure auzoko zaharrenek dakite hori ondoen.

Bestalde eta bukatzeko, Noauak beste denboraldi bati hasiera emango dionez, aditzera eman nahi dut edozein auzotarrek bere

Andoni Udabe



iritzia, kronika, pasadizoa...kontatu nahi badu atal hau zabal-zabalik duela nahi duenerako. Aldez aurretik eskerrak denori zuen laguntzagatik.



ATXEGALDE

Ezer ez al da betiko?

Normaltasunera bueltatzeko dakarren har gaizto hori barruan jira eta buelta dabilkidala eutsi diot oraingotan tartetxo honi. Betiko ibilbideak, betiko ordutegia, betiko lekuak, betiko jendea, betiko soinuak...

Norbaitek urte sasoi berri honi gogo gutxiz ekin diodala pentsa lezake, hainbeste "betiko" gora eta behera...ba, ez dabil zuzen. Uda garaia amaitzea ez dut gustuko eta tristura ere ematen dit, baina, ezer ez da betiko eta triste egonagatik ikasturte berria berdin-berdin gainera etorriko zaigunez, eutsi goiari!

Hasieran abiatutako bideari eutsi behar diot, azken lerrora

arteko tarte hau zilipurdika egingo baitut bestela (ez litzateke lehenengo aldia izango).

Hel diezaiodan bada, hasiera batean nire kronikaren ardatz gisa planteatu dudana hitzari: betiko. Gure auzoan dagoeneko oporretatik bueltatu da betiko soinua. Goizeko 9.00ak aldera esnatzen du auzoa soinu ezagun honek eta beti berdez janzten da. Bere magalean ikastolara bidean doazen haurrak eramaten ditu, goxogoxo ohetik altxa eta Cola-Cao hartu berriak. Batzuk kontent egiten dute gerora "betiko" bidea izango dena, beste batzuk, berriz, oraindik ez dute oso ondo ulertzen nora dararomatzen dama berde handi horrek. Amak goizean goiz

Amagoia Mujika



esnatu ditu eta oraindik berri usaina duen mantal horretan sartu ditu. Autobusera sartzean (dama berdea autobusa baita), muxu goxo bat eman die, azkenengoa balitz bezala. Ikastola deritzon horretara iritsi eta bere tamainako jende mordoak aurkitu dute eta hara! orain arte unibertsoko gune sentitzen zena orain konturatzeko da ez dela munduko pertsona txiki eta xarmangarri bakarra. Hasierako egun horietan, pertsona txiki betetako unibertsuan defendatzea da garrantzitsua. Bakoitzak modu propioa du hori egiteko eta tresnarik ohikoena hortzak izaten dira. Ondoren hasiko da haurra lagunak egiten, gerora betiko lagun izango direnak.

SANTUENEA

Zubiaren "koxkak"

Zubiaren alde bakoitzean egindako koxkak dira auzoan hizpide azken aldian. Denetariko iritziak daude, gainera, hauen inguruan; irtengune hauek autoetako motelgailuak izorratzeko besterik ez dutela balio diote batzuek, beste batzuek, berriz, bi baino



gehiago jarri beharko liratekeela uste dute eta bada zubian baino auzoan jartzea hobe litzatekeela pentsatzen duenik.

Esanak esan, bi koska hauek dauden tokian daude jarrita eta denbora askorako ziurraski. Hala ere, gaur egun modan dauden irtengune hauek seinale bat beharko lukete aurretik, koxkak ezagutzen ez dituztenak autoari kolpe bat ez ematearren.

Bestalde, berriro ere iraila ailegatu zaigu eta umeak eta umeak ez direnak ere, beren eginbeharretara bueltatu behar. Aurreko egun hauetan ume pila bat ikusi da auzoan

zehar jolasean. Hauek, beti bezala, ezin geldirik egon, eta egia esan guraso asko egongo da eskola garaia noiz ailegatuiko zain. Hala ere, eskolako bueltarekin poltsiko askok atzemango du zuloa; liburuak, arropa, motxilak...

Azkenik esan, Santuenea baserria bota zutenetik mota guztietako zurrumuruak izan direla, bertan pilotalekua egin behar zutela ere esan zen. Auzoak benetan eskertuko luke pilotaleku bat. Hala ere, ez dirudi mugimendu handirik dagoenik baserri hau zegoen tokian eta azkenean belardi bat baino ez da geratuko.

Isaak Muñoz



URDAIAGA

Itzulera

Dagoeneko udararen azken egunetara iristen ari garen honetan, Noaua! martxan da berriro ere, baita gu ere. Askotan gertatu izan zaigu auzoko kronika idazteko eskatu eta zer idatzi jakin gabe gertatzea. Oraingo honetan niri ere hauxe gertatu zait. Agian askok esango duzue udara osoa pasa eta gero ezer kontatzeko ez izatea ia ezinezkoa dela. Baina, ez!

Gure auzoan mugimendu askorik ez da izan. Eguraldik ere ez du gehiegi lagundu eta, beraz, Aialdeneako parkean ez da jende askorik izan. Bisitari eta "domingero" gutxi izan

ditugu, ia etxe osoa ekartzen dituzten horietakoak egun pasa egiteko.

Hala ere, maiz gertatzen ez diren gertakizun bitxi horietako bat izan dugu auzoan. Askotok jakingo duzue sendategiko gaixoaren desagerketaren berri eta, tamalez, honen heriotzaren berri ere.

Baina istoriotxo honez gain, ez dut ezer gehiago kontatzeko. Agian egongo da zer aipatzerik. Baina, nik dakidala ez dago ezer berezirik, edo hobe

esan ez naiz gogoratzen. Beraz, hurrengo kronikararte agur esan behar, ea hurrengoan "esklusibaren" batekin etortzen naizen noaua!ko irakurleoi kontatzeko.

Eider Jauregi



AGINAGA

Azken aurreko kronika

Manolo Begiristain



Urte ta gehiago bada Aginagako kronikak idazten hasi nintzela eta agurtzeko garaia ere iritsi zait, gero eta zailagoa baitzait gaiak bilatzea tartetxo hau idazteko garaian eta jende berriari lekua egiteko asmoa dut urte berriarekin bat. Nire ideia eta asmoa hasieratik baserri munduaren inguruko gaietara eustea izan da, bertako arazoak gero eta hiritarrago den Usurbilgo jendeari azaldu nahian.

Heldu da urrak eta intxaurrek biltzeko garaia, piperminak beste hilabete bat edo luzatuko dira, babarrunak jasotzen

hasteko garaia ere badator (aurretik denak ez badira usteltzen) eta ondoren sagardotarako sagarraren txanda izango da.

Uzta jasotzeko garaia da uda bukaera, aurretik izan ditugun eguraldiak nola, orain jasoko ditugun emaitzak hala.

Trumoia jotzen hasi da, oso sargori dago eta euri pixka bat egingo balu, egun hauetako bero nazkagarria

uxatzeko kalterik ez, nahiz eta hezetasuna eta beroa diren baratzetan kalte gehien eragiten duten elementuak.



ZUBIETA

Zubieta aldaketatxo batzuekin

Olatz de Miguel



Porretatik itzultzean, Zubietako bira egiten hasi zaretenok aldaketatxo batzuk somatuko zenituzten inguru hauetan. Alde batetik, betidanik hainbeste arazo eman dituen Zerra aurreko bihurgunea zabaldu dute, mesede handia eginaz gidari zein oinezkoiei. Pixkanaka-pixkanaka horrenbeste urteetako proiektuetan egon diren bihurguneen zabalitze edo hobetzeak gauzatzen ari direla ematen du.

Honez gain, txukunketa baten beharrez zegoen eliza ere konpontzen hasi ziren Zubietako festak eta

gero, eta obrak aurrera doaz. Non buka-

tuko ote dituzte lehenago konponketak, Usurbilen ala Zubietan?



Bestetik Lasartetik datozenek hipodromoko aparkalekua itxi dutela konturatu ziren, nahiz eta hau uda hasierako kontua izan. Hala ere, aparkalekua itxi edo ez itxi, hor kanpoan jarraitzen dute kotxeek, besteak oztopatuz. Hau ere noiz-bait konpondu beharko den gauza da.

Azkenik eta amaitzeko, azken hilabete honetan hipodromoan izandako lasterketek beratu bizitu dutela dirudi. Horrela jarraituko al du! Hala ere, oraindik zenbait irratietan Lasarteko hipodromo bezalako gauzak entzuten dira, jendeak noiz ikasiko ote du.

Aginagak bi bandera irabazi zituen Kontxako estropadetan



Aginagak Kontxako bi bandera irabazi ditu, 1957 eta 1960koak, eta hantxe daude gordeta Aginagako soziedadean. Aginagak bost aldiz besterik ez du parte hartu estropada horietan. Bostetik bitan bandera, ez da marka txarra, alajaina!

Berrogei urte dira aginagarek Kontxako beren bigarren bandera irabazi zutenetik, 1960ko irailaren 11n. Geroztik Kontxan ez da aginagarren kolore urdinik ikusi, baina beste kolore batzuk defenditzen hainbat aginagar ibili da, ia denak soinean oriotarren kolore horia zutela, baina ez denak, izan dira bestelakoak ere. Aurten bertan ere aginagar bat Kontxan bandera irabazi duen koadrilan zegoen,

Iñaki Errasti, 1957ko lehen bandera eta 1960ko bigarrena irabazitako **Martin Errastiren** semea bera.

Oriki bere historia osoan izan duen boladarik onenean, 70eko hamarkadako lehen urteetan, han ibili ziren **Berezartua anaiak**, **Jose Manuel** eta **Joxe Luis**, horien lehengusu **Claudio Berezartua**, **Joxe Leon** eta **Rosendo Lizaso**

anaiak, baita **Joakin Manterola** zena eta **Jose Luis Seguro** zena ere. Eta larogeiko hamarkadan **Antonio Beloki**. Aginagatik joan zen Orio alde-
ra arraun olinpikoan munduko txapelduna izatera iritsi zen **Jabier Puertas** ere, azken urteotan Orioko traineruan dabil-tzan Asier eta Gorkaren aita. Beraz, ez da ura bakarrik Oria ibaian barrena Orio aldera dihoana. Makina bat bandera orioratzen lagundu zuten aginagarrek.

Aginagako traineru baten Kontxako lehen parte hartzea 1931koa izan zen. Azkenak gelditu ziren, zazpigarren, bandera San Pedrorra joan zen. Hurrengo urtean, 1932an, berriz jokatu zuten eta aurreko urteko postu berean geratu ziren, zazpigarren, baina honako honetan azkenbigarren, zumaiarren aurretik. Bandera, berriro, sanpedrotarren Aita Manuelek eraman zuen. 1956 arte ez zen Aginagako traine-
rurik izan. Urte hartan hiruga-



Kontxako bi ikurrinak Aginagako soziedadean daude oraindik

rren sartu ziren, bosgarren gelditu ziren usurbildarren aurretik eta bandera San Juan aldera joan zen.

Lehen Kontxako bandera, 1957an

1957ko Kontxako estropada historiako gorabeheratsuenetako bat izan zen, izan ere bigarren igandeko estropada hiru aldiz bertan behera utzi eta atzeratu behar izan baitzuten. Azkenean irailaren zortzian jokatu beharrekoa hemezortzian jokatu zen.

Garai hartan arazoa ez zen izaten kanporaketa gainditzea Kontxako zortzi lekuetako bat eskuratzeko, zortzi leku horiek osatzea baizik; 1957ko urte hartan hiru traineruk bakarrik izen eman zuten Donostian: San Juan, Pasai Antxo eta Aginagak. Antxokoak ez ziren inoren pronostikoan sartzen bandera eskuratzeko, San Juan eta Aginaga, berriz, oso pareko agertzen ziren estropada aurretik, biak zein baino zein. Sanjuandarren patroia **Joxe Anjel Lujanbio** zen, antxotarre-



Goian ezkerretik eskuinera: Ramon Arreseigor, Bautista Oliden, Andres Bruño, Joxe Aranburu, Imanol Ikutza, Altzerri, Juan Ikutza eta pasaitar bat.

Behean ezkerretik eskuinera: Manuel Alkorta(atzean), pasaitarra, Julian Pikabea (atzean), Antonio Manterola, Tiburtzio Etxeberria, Antonio Oliden, Joxe Antonio Etxeberria eta Martin Errasti. **Goiko emakumea:** Maritxu Pikabea

na beste Lujanbio bat, Bixente, eta aginagarrena **Ramon Arreseigor "Trabuko"**, beste hainbat eta hainbat bezala, Orioko Ortzaikan sortua.

Lehen bandera eskuratu zutenean bigarren igandeko estropada hiru aldiz bertan behera utzi eta atzeratu behar izan zuten

Lehen estropada irailaren batean jokatu zen, eguerdiko hamabi eta erdietan hasita. Estropada, orain ez bezala, lau luze eta hiru zibogakoa izan zen. Ziboga guztiak Aginagak San Juanen aurretik eman zituen, baina oso alde estuarekin. Sanjuandarrak minutuko 48 arraunkadako erritmoan etorri ziren, aginagarrik berriz, 46an. Bukaeran hiru segunduko alde izan zuten irabazleek, Aginagak: 22-57 eta San Juanek: 23-00. Pasai Antxo oso oso atzean geratu zen, bi minutu eta hogeitasegundura.

Hurrengo igandean, irailaren 8an itsaso ikaragarri handia zegoen eta arrisku handia zela

estropada jokatzeko eta bertan behera utzi eta asteartera atzeratu zuten. Astelehen hartan beste estropada bat jokatu zuten San Juanek eta Aginagak elkarren artean. Hondarribian izan zen eta arroxak nagusitu zitzaizkien urdinei. Astearteko egunkarietan, estropada lan-egunean zela eta, tallerretako nagusiei eskatzen zitzaien eskuzabal jokatzeko eta langileei lehenxago ateratzen uzteko lanetik, estropada ikustera joan ahal izateko. Estropada arratsaldeko 6:45etan jokatu zen. Aginagarrik berriz nagusitu ziren, 21 segunduko aldearekin, San Juanen aurretik.

Baina estropada hura ere bertan behera utzi zuten, aginagarren kaleko itsasoko baliza mugitu eta hauek askoz metro gutxiago egin behar izan omen zituztelako. Estropada biharamunera atzeratu zuten. Baina asteazkenean ezin izan zen estropada jokatu, antolatzaileak gauza izan ez zirelako itsasoko balizak jartzeko, itsaso handi samarra eta berandu hasi zirela medio. Hori asteazkenean izan zen, irailak 11. Hurrengo igandean, 15ean, San Juanek Espaiñako txapelketa jokatu zuten Koru-



Garai hartan ez zen "mercedes" ik behar izan arraunlariei ongietorria egiteko. Gizon hau asto gainean jarri eta han joan zen "ezin kabituan" arraunlariak zoriontzera. Astoa dotore apaindu zuen Kontxako ikurrina irabazi zuten aginagarrei ongietorri dotorea egin asmoz.

ñan eta irabazi, Sestaori bi segunduko alde atereaz.

Hiru egun beranduago, irailaren 18an, jokatu zen, azkenik, baleko bigarren estropada eta aginagarrik berriz nagusitu zitzaizkien pasaitarrei, 36 segunduko aldearekin. Beraz, bigarren saioa hiru aldiz atzeratu eta gero irabazi zuten aginagarrek beren lehenengo bandera Kontxan, bandera "18 de Julio" izeneko plazan jaso zuten Trabuko patroiak, oraingo Konstituzio Plazan, eta astinduz erakutsi balkoitik behean bildutako ehundaka jarraitzaileei. Aginagan festa ikaragarria izan omen zen. Hala esan zigun behintzat laguntza ederra eman digun **Ana Mari Arrilagak**.

Bandera hura eskuratu zuen kuadrila hartako zortzi mutil Aginaga bertakoak ziren: **Manuel Alkorta, Imanol eta Juan Ikutza** anaiak, **Antonio Manterola, Martin Errasti, Andres Bruño, Julian Pikabea** eta **Joxe Aranburu**. Gainontzekoak bost oriotar eta bi pasaitar ziren: **Batista eta Antonio Oliden** (Konpaxata-

1957ko estropadak ez ohiko berezitasun bat izan zuen: orain ez bezala estropada lau luze eta hiru ziabogakoa izan zen

rrak), **Juan Lizarralde "Altzerri"**, **Joxe Antonio Etxeberria** eta **Ramon Arreseigor "Trabuko"** oriotarrak; "Altzerri" ez beste guztiak Ortzaikakoak.

Hurrengo igandean, kuadrila hartako arraunlari batzuk Bartzelonara joan ziren kamioi batean, trainerilla estropada bat jokatzera, ontzia kamioi gainean zeramatela, Orioren izenean. Patroia berriz Trabuko zutela Bartzelonakoa ere irabazi egin zuten.

Bigarren bandera 1960koa

Hiru urte beranduago, 1960an, berriro osatu zen kuadrila Aginagan Kontxarako. Urte hartako estropadak ez zuten aurreko hark hainako his-

toriarik izan. Orduan ere, aurrekoan bezala, sanjuandarrak izan zituzten kontrariorik handienak; baina bi igandean atzean utzi zituzten, guztira 44 segunduko alde kenduta. Urte hartan patroia **Claudio Etxeberria "Gorriya"** izan zuten. Aginagarekin irabazi zuen Kontxako lehen bandera. Gero Orio, Lasarte eta Zumaiarekin ere bandera etxeratu zuen Gorriyak. Urte hartan bost traineruk parte hartu zuten estropadan: Aginaga, San Juan, Jaizkibel, San Pedro eta C.D.Pasajesek, eta orden horretantxe sailkatu, eta estropada, orain jokatzeko den bezala, ziaboga bakar batekoa izan zen.

Bi bandera horiek Aginagako soziedadeko bitrinan daude; 1957 eta 1960koak izanda, biak ere Espainiako banderak dira, hori-gorriak, baina norbaitek eskua sartu zien Aginagan bi banderei eta orain bestelakoak dira, alboetako bi marra gorrien gainean, erantsita, bi oihal txuri baitaizkate; beraz, txuri-horiak.

Iñaki Iturain



Iñaki Errasti

Aurten hasi da Orton arraunean 21 urteko aginagarria eta hiru bandera irabazi ditu ja. Ez du Kontxan parte hartu, ordezko moduan egon balta

"Itsasoan arraun egiteko esperientzia falta dut"

Nola hasi zara aurten arraunean?

Futbolarekin nazkatu egin nintzen eta bi hilabetetan nire kontura korrika eta lagunekin palaz jokatzeko ibili nintzen. Gero zedozeretan hasteko gogo eta etorri eta arraunean hasi nintzen Orton.

Gogorra egin al zaizu?

Ez, mentalizatuta eta ilusioarekin bainengoen. Hasieran dena berriz zen niretzat eta gogorra da egunero entrenatu beharra. Hala ere gustora nabil.

Bandera batzuk ere irabazi dituzu ezta?

Uste baino estropada gehiago jokatu ditut, eta hauetako hirutan

garaipena guretzat izan zen. Santurtzi, Zierbana eta Zumaiako banderak irabazi ditut aurten.

Kontxan ez duzu parte hartu.

Ni aurten hasi naiz arraunean eta hemen irabazteko esperientzia beharra dago. Hala ere, denboraldia amaitzeko bi aste falta dira, eta hauek errekan direnez Altzerri hauetan parte hartuko dudala esan dif. Itsasoan aritzeko esperientzia falta zait oraindik.

Martin zure aitak bi urtetan irabazi zuen Kontxako bandera.

Ea nik ere irabazteko aukerarik badudan. Hurrengo urtean Kontxan egoteko esperantza daukat.

Ondasun higiezinaren eta jarduera ekonomikoen gaineko zerga kobratzea udalaren esku

2000. urtetik aurrera, eta aurtien lehenengo aldiz Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (kontribuzioa) eta jarduera Ekonomikoen zerga Usurbilgo udaletxean ordaindu beharko dituzte zergadunek. Orain arte haziendak kobra tzen zituen zerga hauek.

Helbideratuta dauden ordainagiriak 2000ko urriaren 2an kobratuko dira zuzenean eta helbideratu gabe daudenak zergadunek adierazitako helbidera bidaliko dira irailan.

Irailaren 1etik azaroaren 10era bitarteko lanegunetan, biak barne, ordaindu ahal izango direla borondatezko epean Landa zein Hiri izaerako Ondasun Higiezinaren eta

Ekonomia Jardueren gaineko zerga.

Maiatzak 30 baino lehen helbideratutako ordainagiriak banku edo aurrezki kutxatik kobratuko dira zuzenean 2000ko urriaren 2an.

Helbideratu gabeak eta gainerako ordainagiriak, ordea, zergadunek adierazitako helbide fiskalera bidaliko dira irailan, UDALETXEKO ZERGABILKETA BULEGOAN, KUTXA, EUSKADIKO KUTXA EDO GIIPUZKONO BANKETXEAN ordainduak izan daitezcan.

Era berean, zergadunek helbideratu gabe dituzten ordainagiriak helbideratzeko aukera izango dute jakinarazpenean igortzen den helbideratze ereduarekin bete eta udal txerara zuzendu beharko dute-


larik.

Egunero goizeko 9:00etatik eguerdiko 14:00ak arte zergadunak ordainagiriak ordaindu ahal izando ditu, igandeak eta jaiegunak izan ezik, Usurbilgo zergabilketa bulegoan.

Urriaren 10a iritsi eta zergadunak ordainagiriak ez badu etxean jaso Usurbilgo udaleko zergabilketa zerbitzuan eskatu beharko du borondatezko epea amaitu baino lehen.

Adierazitako epe hori bukatu ondoren eta zergadunak zerga ordaindu ez duen kasuan, Gipuzkoako Ogasun Foralak premiamendu bidezko ihardunbideari ekingo dio besterik gabe, ordaindu ez diren kuotak %20ko gainkargua, berandutza interesak eta

Abuztuan Usurbil berria eraikitzen



Abuztua opor garaia izaten bada ere, batzuek Agogotik lana egin beharra izan dute. Alde batetik Paris etxe atzeko parkea egiteko lanak aurrera doaz. Parkea nolakoa izango den antzematea oraindik zaila den arren, lehen zuen itxurak eta gaur egun duenak ez dute zerikusirik. Bestalde, elizako dorrea eraberritzen aritu direnek ere ez dute atsedenik izan. Hala ere egindako lanaren fruitua ezin da oraindik ikusi, guztiz estalita baitaude dorrea. Herriko elizan bakarrik ez, Zubietako Santiago elizan ere konponketa lanetan dabilta. Teilatua berritu, eliz barrua eta aurre aldeko harria pintatuko dituzte.

JUANTXO
Burdindegia



Kale nagusia, 10
Usurbil

37 00 08

ZITZANGA

HERRIKO TABERNA

Astebukaeretan bokatak, plater konbinatuak, pintxo beroak...

Tel. 943 36 02 17

Euskal presoak etxera!



KALEZARRA
KARROZERIA




Txapa konpontzea eta pintatzea
Bankada unibertsala

Ugaldea industrialdea, 36
Telf: 37 36 09

50 lagun inguru bildu ziren Baba Beltz Txikiaren Kofradiaren bazkarian

Aurten ere ez dute hutsik egin. Abuztuko azken osteguna iristearekin batera Andatzpe elkarrean bildu ziren Baba Beltz Txikiaren kofradiakoak. Bapo jan eta edan ondoren kofrade berria izendatu zuten: Sakana-ko Iriberrri herriko baba saltzaillea den Javier Zubiria.

Jatena eta edana gogoko omen ditugu euskaldunok, eta usurbildarrak ezin gutxiago izan. Bestela galdetu Baba Beltz Txikiaren kofradiako bazkarian bildu ziren 50 lagun ingururi. 17 urte inguru pasa dira bazkari hau egiten hasi zirenetik, eta abuztuko azken ostegunean badakite non duten jatordua. Hala ere, hasiera hartatik izan da alda-



ketarik. Duela lau urte kofradia sortu zuten eta urtero kofrade berria izendatzen dute. Bazkari hau prestatu ohi duen **Felix Sarasola** sukaldaria izan zen lehenengo kofradea, **Joxe Luis Ibarguren** bigarrena eta **Joxe**

Torregarai hirugarrena. Aurten, ordea, mugak gainditu eta Nafarroara joan dira kofradiako kapa eta txapela, Sakana-ko Iriberrriko **Javier Zubiria** baba beltz ekoiztailea izendatu baitute laugarren kofradea.

Javier Zubiria
Baba Beltz Txiki ekoiztailea



“Kanpotik ekarritako baba beltza gero eta gehiago saltzen da”

Noiz hasi zinen baba beltza saltzen?

35 urte inguru daramatzat baba beltza ereiten. Gure baserrian lehen ere egiten zen baina urte batzuetan utzita ere egon gara.

Baba beltza asko saltzen duzue?


Gero eta gutxiago. 10.000-12.000 kilo ateratzen ditugu urtean, baina urtetik urtera gero eta gutxiago saltzen dugu. Europako Batasun elkarrean sartu eta merkatu asketan gaudenetik gero eta gutxiago saltzen dugu.

Zer gertatu da ba?


Kanpotik baba beltz asko ekaritzen da, eta prezioek behera egin dute. Jendeak merkeagoa dena erosten du askotan, eta beraz, kanpokoa nahiago izaten dute. Duela 12-13 urte baba beltz asko saltzen genuen, orain ordea, merkatu honetan sartzea oso zaila da.

Aurrerantzean baba beltzarekin jarraitzeko asmoarekin?

Jarraitu, jarraituko dut, baina hemendik aurrera baba beltz gutxiago ereingo dut.



Igandetan ganba-ziri mundialak!



TXIRIBOGA
TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13


Herriko kirolariak indartsu udan

Herriko kirolariak hainbat garaipen lortu dituzte abuztuaren. Alde batetik **Joxe Migel Peñagarikano** Donostiako aste nagusian jokatzeko den aizkolarien urrezko kopan garaipena lortu zuen. Trinitate plazan izan ziren abuztuaren 15ean egungo aizkolaria onenak, eta usurbildarrak egin zuten denborarik onena. Bestalde, txirrindularitza ere aipatu beharra dago. **Haimar Zubeldia** Espainiako itzulian dugu. Guk erredakzioa isterakoan 12. postuan zegoen Urdaigako txirrindularia.



Bi aste desagerturik egon ondoren, pasa den Birailaren 1ean hilik aurkitu zuten San Estebango sendategitik desagertu zen gizona. Enbillenea baserri inguruan aurkitu zuen herritar batek J.C.C.P. 68 urteko donostiarraren gorpua. Abuztuaren 20tik desagerturik zegoen gizon hau. Desagerketaren ondoren bilaketa lanetan ibili ziren lau egunez, baina ez zuten donostiar hau topatu. Pasa den irailaren 1ean, ordea, herritar batek Enbillenea inguruan aurkitu zuen bere gorpua.

Ea ba igandea bitartean denbora piska bat erre-kuperatu eta lehenengo 10 postuetan sartzeko aukerarik duen. Hala ere, anaia ere aipatu beharra daukagu oraino honetan, **Joseba Zubeldiak** afizionatu mailako Elgoibarko San Bartolome laisterketa irabazi baitu abuztuaren. Horrez gain, Gipuzkoako txapelketan laugarren postua eskuratu zuen. Azkenik, eskubaloian, **Asier Zubiria** Grezian izan da Espainiako selekzioarekin junior mailako Europako txapelketa jokatzeko. Bertan, 3. postua eskuratu zuten Yugoslavia eta Bielorrusiaren atzetik.



Udarako oporraldien ondoren odola bero-berokidua ere jende ugari hurbildu zen ambulatortara odola ematera. Urteko bosgarren odol emaldia zen irailaren 11an, eta oporraldiaren ondoren indar berrituta etorri ziren odol emaldea. 75 pertsona inguru azaldu ziren, 62k gairitu zuten medikuaren proba eta azkenean odola eman zutenak 60 izan ziren. Oraingo honetan ere odolik eman ez baduzu, lasai, azaroaren 13an izango duzu hurrengo odol emaldia.



Juan Altuna usurbildarraren limousin arrazako behiek sari ugari irabazi zituzten pasa den abuztuaren 26an Elgoibarren izan zen limousin arrazako behien Euskadiko txapelketan. 27 eta 36 hilabeteko behien mailan lehen postua eskuratu zuen usurbildarraren behi batek, eta baita 37 eta 47 hilabeteko artean ere. Horrez gain, herriko abeltzain honek aurkeztu zuen 31 hilabeteko behiarentzat izan zen txapelketako behi onenaren saria.

Andatza
S.L.
Carrocerías

Industrialdea
Errota Berri kalea
Tlf: 36.36 77

TABERNA-JATETXEA



ANTXETA

EGUZKITZA, 4
20.170 USURBIL

TEL: 943 37 03 44

SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA
IOSU
Ugaldea poligonoa 36 - 2^a Esk
Usurbil - Gipuzkoa 37 19 54

INDUSTRI ETA
IRAGARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA

Folkcore Bad Religioneekin batera aritzen Anoetako Belodromoan

Arkaitz Iparagirre zubietarra duela lau urte hasi bazen ere Folkcore taldearekin jotzen, hauxe izan da bere lehen kontzertu handia. Hala ere, Bad Religion talde handi bezain ezaguna izan arren mundu osoan, lehenengo urteko maitatzean San Franciscoko Hellworms musika taldearekin izandako kontzertua askoz gehiago gustatu zitzaiola aitortu zuen.

Folkcore taldeak duela zazpi urte egin zituen bere lehen urratsak musika munduan. Bi kidez osatuta hasi baziren ere, dagoeneko bost dira, eta horietako bat **Arkaitz Iparagirre** zubietarra. Usurbilgo beste musika taldetan aritu bada ere, orain Folkcoren dabil baxujole modura. Musika azkarra egiten dutela dio, eta zenbait kasutan "hardcore melodikoa". RKL eta Sick off it all talde amerikarrak dituzte eredu, nahiz eta beste zenbait taldeetan ere oinarritu beren musika estiloa garatzeko orduan.

Letrei edota abestien gaiak dagokionez ere, eremu nahiko zabala dutela dio Arkaitzek. "Normalean letrak abeslariak egiten ditu. Larrak idazten ditu eta gero talde guztiaren artean aldaketarik behar badute, guztion artean osatzen ditugu. Azkenengo maketan, esaterako, bakardadea, preso baten amari buruz idatzitako letra,



disketxeei buruz, monotomiari buruz, pranoia bezala batek egiten duen bidai bati buruzkoak,... Denetik pixkat egiten dugula esango nuke, politikarra bakarrik mugatu gabe".

"Bad Religion baino talde hobegoekin jo dugu"

Folkcore talde oso ezaguna ez bada ere, Bad Religioneekin jotzeko aukera izan zuten. Anoetako Belodromoan 3.000 pertsonen aurrean. Arkaitzen esanetan, "jende aurrean izandako kontzertu handiena izan da, dudarik gabe, baina talde bezala Bad Religion talde ezaguna izan arren, talde hau baino hobegoekin jo dugula uste dut. Lehenengo urtean, esaterako, gure idolo-etako bat den Hellworms talde amerikarrarekin jotzeko aukera izan genuen Trintxerpen". Dena den, beraienzat oso esperientzi ona izan zela aitortu zuen.

Folkcore izan zen kontzertuko lehen taldea. Laugarren abestian, Arkaitzi baxuko soka puskatu zitzaion, eta ondoren jo behar zuen Larrana Toro taldekoek beren baxua utzi zieten. "Momentu hortan urduri jarri nintzen, baina azkenean dena konpondu zen". Orain arteko kontzertuetan egin ez zuten gauza bat egin zuten kontzertuan. Preso baten amari eskeinitako abestian parodia moduko bat egin zuten.

Bukatzeko gauzatxo bat azpimarratu nahi izan zuen Arkaitzek: "Bad Religion talde ezaguna izanagatik, ezin dute nahi dutena egin. Kontzertura berandu etorri ziren, beren hegaldia galdu zutelako. Edonori gerta dakiok hori, baina kontzertua ordu erdi beranduago hasi zuten, jo baino lehenago saioak egin behar izan zituztelako".

Agurtzane Solaberrieta

Haur
jantziak



Kale Nagusia, 2 Tel. 943 36 59 43

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

N • U
Ileapaindegia
MISTOA
Solarium, depilazioa,
makilajea eta manikura

Aritzeta 2-2 1.A
Tel.: 943 36 19 51

Dioni Beraetxe: “Nire ikasle izandako batzuk irrifar batekin agurtzen naute”

Dioni andereñoa deitzen diote haurrek. 2-3 urtekoei eskua emanda ikusi izan dugu askotan. Negar ugari entzundakoa da bera, Udarregi ikastolan hasi izan diren haurren “bigarren ama” izan baita 27urtetan. Iazko ikasturtea izan zen azkena. Aurten iritsi zaio jubilatzeak aukera Dioni Beraetxeri, eta ikasturte hasiera prestatzen lagundu badu ere agur esango dio Udarregi ikastolari.

27 urte pasa dira haurren irakaskuntzan sartu zinenetik. Garai hartako oroitzapenik bai?

Ni hasi nintzenean egoera bestelakoa zen ikastolan. Egiteko asko zegoen, eta oraingo ikastolak zerikusi gutxi zuen garai batekoarekin. Haurtzaindegian bi urte inguru egin eta ondoren ikastolara pasa nintzen. Garai hartan lan asko egin behar zen ikastolan. Ordurako piska bat normalduta zegoen ikastolen kontua, baina toki aldetik bagenituen zenbait arazo. Garai hartan pasa ginen Kalezarko eskolaurreko gela haietara.

Garai hartan hasi zen Udarregi ikastola bi urteko haurrekin ezta?

Bai, ni sartu nintzenean. Haurtzaindegia indartzen saiatu ziren, baina oso defizitarioa zen hura. Ikastolak bi urteko haurrak hartzen hastea zen bigarren aukera, eta honi heldu zioten.

Zenbat urteko umeak eduki izan dituzu?

Bi eta hiru urtekoak. Bi kurtso jarraian egiten nuen talde berarekin, bi urterekin hartu eta hiru urterekin bukatu arte. Azken urteetan, berriz, bi urteko haurrak eduki izan ditut.



Talde berarekin egon ondoren pena emango zizun talde hori uztea ezta?

Beti ematen du pena. Ikasturtea bukatzerako lasaituta egon ohi dira, martxa bat hartzen dute eta ikasturtea amaitzerako ondo egon ohi dira. Hurrengo ikasturtean, berriz, haur horiek utzi eta beste talde batekin hasi beharra dago.

Gerra asko ematen dute 2-3 urteko umeek?

Bai batez ere bi urteko umeek. Hasiera gogorra izaten da eta oso lan neketsua izaten da azkenerako. Urterotero negarra izaten da nagusi ikastolan hasten direnean, bai lehen eta bai orain. Ikasturtea ondo antolatuta baduzu hobekiago pasatzen duzu. Orain antolakuntza hobea dago, lehen irakasle gutxiago izaten baikinen.

Gero eta ume gutxiago al dago Usurbilen?

Nabaritu dugu, bai. Lehen bi gela osatzen ziren, baina gero gela bakarrarekin egon garen urteak izan dira. Orain badirudi berriz ugaritzen ari direla haurrak. Aurten, adibidez, bi

gela egiteko adina haur izango dira. Hala ere badago ezberdintasun bat. Hasera batean bi urteko gutxiago matrikulatzen ziren, ohitura falta zegoela iruditzen zait. Orain bi urteko haur gutxi gelditzen dira ikastolara joan gabe.

Kalean zoazenean ezagutzen al dituzu zure ikasleak izan diren horiek?

Usurbildar ugariren irakasle izan naiz, eta asko eta asko ezagutu izan ditut. Beraiek ere ezagutzen naute ni e! Batzuei grabatuta bezala gelditu zaie garai hura eta irrifar antzeko batekin begiratzen didate alboan pasatzen garenean. Gonapetik kendu ezin izan ditudan asko izan dira.

Ikasturte berria hasi da, etsiko al duzu haurrik gabe?

Bai. Ustekabean etorri zait jubiliazioa, baina aukeran jari didate eta... Haurrekin egotea nekagarria da. Gainera nik beti esan izan dut txikiek gazteek egon behar dutela, beste freskotasun bat baitute hauek.


Arraia, kintzea, jokoa... hasi dela "Endika Abril" errebote txapelketa

Dagoeneko hasi da Endika Abril errebote txapelketa. Pasa den abuztuaren 28an jokatu behar zuten lehen jardunaldia, baina euriaren ondorioz astebete beranduago ekin behar izan zioten txapelketari. Guztira 10 talde izango dira lehian, horietatik bi zubietarrak. Azken partidua, berriz, Billabonan jokatuko da.

37 urte pasa dira "Endika Abril" errebote txapelketa jokatzeko hasi zirenetik. 1963. urtean jokatu zuten lehen txapelketa. Donezteben izan zen azken partidua, eta Donibane Lohitzunek eskuratu zuen lehen txapela, Hazparneri 13 eta 8 irabazi ondoren.

Urteak joan, urteak etorri talde ugari izan dira txapelketa honetan parte hartu dutenak. Iparraldeak eta hegoaldeak bat egiten dute 1965az geroztik Zubietan eta Billabonako plazetan jokatzeko den txapelketa honetan. Izan ere, Gipuzkoan gaur egun bi herri hauetan bakarrik mantentzen da errebotea bizirik.

Iparraldekoak nagusi izan dira orain arteko edizio gehienetan. Billabonak lau urtez jarraian (1968-1971) garaipena lortu zuen eta zubietarrek, berriz, behin bakarrik jantzi dute txapela. 1989. urtean izan zen hura. Billabonako pla-



zan Donibane Lohizune izan zuten aurrean, baina zubietarrek 13 eta 8 hartu zituzten mendean iparraldekoak.

Astiazaran, Seguroa, Begiristain, Mariezkurrena eta Cuevas izan ziren "Endika Abril" txapelketako txapela Zubietara ekarri zuten pelotariak. Ondoren ere izan zuten garaipena errepikatzeko aukera. 1991an 13 eta 6 galdu zuten Hazparneren aurka eta hurrengo urtean 13 eta 2 Baionaren aurka.

10 talde 37. edizio honetan

Aurtengoan 10 talde ditugu lehian: Zubietan 1 eta 2, Bear Zana 1 eta 2, Baiona 1 eta 2, Noizbait, Hardoiarrak, Kapito Harri eta Senpere. Talde hauek bi multzotan banatu dituzte eta itzuli bakarreko ligaxka

jokatu ondoren, bi lehenengo postuetan sailkatzen direnek izango dute finalerdiak jokatzeke aukera. Multzo bateko lehenak beste multzoko bigarrenaren kontra jokatuko du eta bigarrenak beste multzoko lehenaren aurka.

Dagoeneko bi jardunaldi jokatu dira eta zubietarrek garaipen bat ere lortu dute. Zubietan 1 taldeak Baiona 2 taldea mendean hartu zuen Zubietako plazan pasa den irailaren 10ean. Zubietan 2 taldeak, ordea, ez zuen zorte bera izan aurreko egunean, Baionako taldearen aurka galdu egin baitzuten.

Aurten Zubietako plazan jokatuko dira finalerdiak, eta txapelketako garailea nor izango den, berriz, Billabonan erabakiko da.

JARRI HEMEN ZURE PUBLIZITATEA

Deitu 943 36 03 21 telefonora



Usurbil Autoak, S. C. L. Zerbitzu ofiziala

Zumartegi Poligonoa
Aitezarra kalea, 1
20170 USURBIL

Tif: 943 36 10 79
Faxe: 943 36 62 92

Santuenean ere jaiak izango dira irailaren 23 eta 24an

Santurik gabeko jaiak dira, bai, baina zailtasunak zailtasun irailaren bukaeran izaten da zer ikusi eta zer gozatua Santueneko jaietan. Azken urteetan jaiak antolatzerakoan jende falta nabaria izan da bertan, baina Ibai Ondo elkarteak iaz hasitako bideari jarraituz aurten ere jai egitarau zabala osatu dute.

Pasa den urtean korrika eta presaka osatu zuten Santueneko jaietako egitaraua. Santueneko jaia esatea izango da onena, egun bakarreko festa izan baitzen ordukoa. Jaiak inork antolatzen ez zituela ikusita, Ibai Ondo elkarteak erantzunkizun hori hartzea erabaki zuen, eta aurten egitarau opa-rogoa prestatu dute.

Garai batean iskanbila ugari izaten ziren Santueneko eta Urdaigako artean. Sanestebango festak Santueneko Ibai Ondo elkartearen aurrean ospatzen omen ziren. Hala ere, tradizio kontuak mantentzeko berriz ere Urdaigara pasa ziren. Hala ere, liskar horiek kon-

pondu ziren, eta orain bakoitzak badu bere jaia. Abuztuan izaten dira Urdaigakoak, irailan, berriz, Santuenekoak.

Lehen go eskubaloijokalaria ikusteko aukera

Jaietan haur, gazte eta helduentzat egitarau zabala osatu badute ere, aurtengoan ekitaldi berezi bat prestatu dute. Garai batean eskubaloia nagusi izan zen Santuenean. Usurbilgo eskubaloitaldeek bertan jokatzen zituzten beren partiduetan eta jai hauetan garai hartako jokalaria zer moduz moldatzen diren ikusteko aukera izango da.

Igande goizean, usurbilgo eskubaloijokari ohiekin eta oraingoekin zenbait talde osatu eta euren artean zenbait partidu jokatuko dituzte. **Juan Manuel Etxabek** egin du partidu hoietarako deialdia. "Azkonobietan, Argote, Txurdo, Aristi, Joxe Mari Mujika... lehen eskubaloian jokatzen zuten 40 lagun inguru biltzeko asmoa dugu. Jendea animatuta ikusi dut, jokatze gogoarekin. Beraz, ikusteko modukoa izango da".



Irailak 23, larunbata

11.00etan: "Gorritren Showa" eskubaloiz plaza.

Ondoren: buruhaundiak

12.30etan: Toka txapelketa Ibai Ondo Elkartearen eta Aiora trikitilaria

16.00etan: Mus txapelketa Ibai Ondo elkartearen. (Izen ematea 15.30etatik 16.00ak arte)

17.00etan: Futbol partida zezenekin eskubaloiz plaza.

19.15etatik 20.00etara: Poteoa Tirri Tarra txarangarekin.

19.30etan: Sardin jana Ibai Ondo elkartearen.

23.00etan: Tirri Tarra fanfarrenaren ikuskizuna.

Ondoren: Jatorrenak txaranga goizaldera arte.

Irailak 24, igandea

11.30etan: gaur egungo eta lehen go jokalariren arteko eskubaloiz partidua.

14.00etan: Zikiro jana eskubaloiz plaza. Tiketak salgai egongo dira Santueneko tabernetan.

17.00etan: Herri jokoak eskubaloiz plaza. (Sokatira, lokotxak, txingak, zaku karre-
ra, astokarrera...)

19.30etan: Santueneko piperren dastaketa Ibai Ondo elkartearen.

Ondoren: Jai hauei amaiera emateko Jatorrenak txaranga.

Oharra: Ibai Ondo elkartearen barra bat egongo da jende guztiarentzat.



Niko Bengoetxea

- ❑ Irakaslea
- ❑ Kulturako zinegotzia

Irakurtzen duen herri bat ez da inoiz hilko

Egungo gizartean gauzak oso azkar ari dira aldatzen; teknologia berriak, interneta, ez dakit zenbat telebista kate berri, sateliteak... gizartea gero eta sumisoagoa, pasiboagoa, dena eginda ematea gustatzen zaigu, eta gure kabuz ahalegin bat egitea gero eta gehiago kostatzen zaigu. Internet eta horrelakoetan bidaiatu gabe, badaude oraindik galdu ez diren bidaiatzeko beste modu batzuk; liburu bat hartu eta irakurtzea, istorio harrigarrietan murgiltzea,... badago hainbat aukera. Baina noski, horrek esfortzu bat suposatzen du.

Hainbat herritar hurbiltzen da Usurbilgo Udal Liburutegira horrelako istorio edota nobela bat hartu eta goatzera, bere imajinazioa leku harrigarrietan eta historia harrigarrietan barneratzera azken batean. Eta usurbildar bezala ni ere hurbildu nintzen udal liburutegira, baina ez zazpi burutako mamuzarren berri jakitera, ez Sarrionaindiaren gartzelako poemak irakurtzera, ez Erdi Aroko mediku baten bizitzaren berri jakitera, ezta historiaurreko emakume baten bizimodua ezagutzera ere. Usurbilgo udaleko ordezkari moduan El Salvadorrera nindon, eta hango gatatzka armatuaren berri, bake negoziazioen emaitzen berri, bertako historia berri jakitera joan nintzen. Baina liburu bakarra aurkitu nuen, El Salvadorreko nazio askapenaren alde bere bizia eman zuen euskal militante bati buruzkoa hain zuzen.


Usurbilgo Udal liburutegian atzeman nuen gabezi horretaz kezkatuta, hutsune hori beteatzeko asmotan hainbat liburu erosi ditugu; ekologismoari

buruzkoak, Emakume borroka, Anarkismoa, sozialismoa, Komunikabideek gizartea manipulatzen duten gaitasuna, beste herrietako borrokari buruzkoak (Kolumbia, Irak, Chiapas, Irlanda, Kurdistan...), euskal gatatzka armatuari buruz, ezkerren norabidea XXI. mendean, globalizazioa, kanpo zorra, besteak beste. Era honetara, gizarte eredu berri baten alde borrokan gaudenok, justizia sozialean sinesten dugunok, ekonomia neoliberalaren aurka gaudenok, berdintasunean sinesten dugunok, munduak egun "funzionatzeko" (multinazionalek herritarrak zapalduta, Estatu Batuen interesen menpe, Munduko Bankua, FMI, ...) duen modua ezagutzeko aukera eskaini diogu usurbildarrei.

Liburu bat irakurtzea ekintza oso positiboa da, ahalegintxo bat suposatzen duena. Batzuetan eguneroko bizimodutik ihes egiteko erabiltzen dugun aukera da, telbistaren hatzaparretatik ihes egiteko aitzakia, Gran Hermano, Reality Show eta horrelako telebista zaborretik hurrin, gizartea manipulatzen duen telebistatik ihes egin, euskal preso politiko baten egoeraz mintzatu beharrean España-Francia futbol partiduari buruz hitz eginarazten gaituen komunikabideetatik ihes egiteko aukera eskaintzen digu liburu batek, eta bide batez errealitate gordinaren azterketa egiten duen libururen bat aukeratuz gero, errealitate hori aldatzea eta ditugun idealak errealago izatea lortuko dugu.

Beste behin ere esango dut, irakurtzen duen herri bat ez da inoiz hilko!

Lehiaketa



Zer aldatu dugu argazki honetan?

Asmatzaileen artean ARGIAK eskainitako bi sorta aukeran:

- 1- GURE MENDEA mahai jokoa-
ren lote oso bat (mahai jokoa ,
liburua eta CD-Roma)
- 2- Liburu sorta bat: Ihesi, Txora-
kikeriak I eta Txorakikeriak II
liburuekin.

Lehiaketa modua aldatu eta irabazlerik ez, hau da marka hau. Beharbada zailegia jarri genuen, agian bai. Aldaketarik ez genuela egin erantzun duenik ere izan da, baina bada-go aldaketa txiki bat. Urdaigako elizako ordulariko orratzak ez dira mugitzen. Nola mugituko dira ba, guk jarritako argazkian orratzik ez dago eta! Aldaketa txikia ezta? Goian dagoen aldaketa errazagoa izatea espero dugu.

PATRI
JATETXEA
Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia 6,
Tel.: 943 36 27 25

20170 Usurbil
(Gipuzkoa)



Urtinea Elkarte

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55

Kale Nagusia, 9 USURBIL
Tlf. 943 37 33 48
943 37 09 13

LABE-GOXO
Ortografia - Gbzoferia



Kima
MASAJE LEKUA



Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behe
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

GALARRAGA
GARRAIOAK

- * LUR ONGARRIAK
- * ZABOR BILKETA
- * ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46

IRAILAK 18 astelehena

- **Euskal prozesu demokratikoaren aldeko konzentrazioa.** Bordatxo aurreko errotondan arratsaldeko 20.00etan hasita.

IRAILAK 23 larunbata

● Santueneako jaiak

11.00etan "Gorritiren Showa" eskubaloi plazan.

Ondoren **buruhandiak**

12.30etan **toka txapelketa** Ibai Ondo Elkartearen eta **Aiora trikitalaria**.

16.00etan mus txapelketa Ibai Ondo elkartearen. (Izen ematea 15.30etatik 16.00ak arte)

17.00etan **futbol partida zezenekin** eskubaloi plazan.

19.15etatik 20.00etara **poteoa Tirri Tarra txarangarekin**.

19.30etan **sardin jana** Ibai Ondo elkartearen.

23.00etan **Tirri Tarra fanfarrearen ikuskizuna**.

Ondoren **Jatorrenak txaranga** goizaldera arte.

IRAILAK 24 igandea

● Santueneako jaiak

11.30etan **gaur egungo eta lehengo jokalarien arteko eskubaloi partidua**.

14.00etan **zikiro jana** eskubaloi plazan. Tiketak salgai egongo dira Santueneko tabernetan.

17.00etan **herri jokoak** eskubaloi plazan. (Sokatira, lokotxak, txingak, zaku karrera, astokarrea...)

19.30etan Santueneako **piparren dastaketa** Ibai Ondo elkartearen.

Ondoren jai hauei amaiera emateko **Jatorrenak txaranga**.

Oharra: Ibai Ondo elkartearen barra bat egongo da jende guztientzat.

● Piper eguna

Goizeko 11.30etan **piper lehia-keta**. Pipermin prexkua eta ozpinetan. Oraingo **herriko 12**



Santuenean Tirri Tarra fanfarrea ikusteko aukera izango da irailaren 23an. Azken aldian modan dagoen taldearekin poteoa egiteko aukera izango da lehenik eta behin arratsaldeko 19.15etatik 20.00. Afal ondoren, berriz, beraien ikuskizuna eskainiko dute gaueko 23.00etatik aurrera. Ondoren txaranga soinuak nagusituko dira goizaldera arte Jatorrenak txaranga izango baita Santuenean.

piper ekoizle gerturatzeko izen emanak daude.

Eguerdiko 13.30etan **txapelketa irabazlea** nor izan den jakin araziko da.

Ondoren herriko lehenengo piper ekoizlea den **Kontsuelo Ibargoieni omenaldia**.

Eguerdiko 13.30ak inguruan **piperra hainbat modutara prestatzeko erakustaldia** jende aurrean sukaldari baten eskutik (zazpi bat pintxo ezberdin).

Eguerdiko 14.30etan lehiaketara aurkeztutako guztientzat eta nahi duten guztientzat Patri jatetxean **bazkaria**. (Txartelak bertan salgai).

Goiz guztian zehar **hazitik azken bilketarainoko piperraren prozesua** jarriko da paneletan **frontoian** jendeak era didaktiko batean erraz ikusi eta ikas dezan.

OHARRAK

- **Galtzaragainan dagoen taberna saldu nahi nuke.** Interesatuok deitu 943 36 45 98 telefonora (gauean deitu mesedez).

- **Bigarren eskuko irratikasetak, telebistak...behar dira,** ahal izanez gero modu onean. Telf. 943 37 18 80 (Ander)

- **Emakume bat behar dugu** goizetan haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Gizarte Segurantzza. Deitu gauez 943 36 34 91 telefonora

- **Udarregi ikastolan eskola kiroleko monitoreak behar dira.** Deitu 943 26 12 16 edo 943 37 06 45 telefonoetara.

- **Frantseseko klaseak hartuko nituzke.** Deitu 629482474 telefonora.

- **Mutil bat behar da igeltseritzako peoi lanetarako.** Baldintzak: Gidatzeko baimena eta autoa izatea./ 18 urtetik 25 urte bitartekoa izatea. Deitu telefono honetara: 943 36 37 67 (Jose txo)

- **Dioni Beraetxe irakaslearen omenaldi afarira** joan nahi duten ikasle, guraso eta lagunak dei dezatela telefono hauetara: 943 37 08 43 (Pili)

943 37 33 46 (Salome)

943 36 58 54 (Montse)

Noiz aterako da hurrengo Noaua?

Berriz ere hemen gaituzue, ate joka. Bukatu zaio Noaua!ri ere oporraldia eta berriz martxan hasi behar. Batek baino gehiagok gu lanean ikusteko gogo ikaragarria zuen nonbait, asko izan baitira aldi goxo honen azken apurrak dastatzen ari ginela, gerturatu eta noiz hasiko ginen galdezka etorritakoak. Dagoeneko, bada, hasi gara.

Beroak burua makaltzen duen arren eta eguzkipean izan bagara ere, oraindik gogoan zaitugu bazkide! Hori dela eta ezin hel diezaiokegu berriz lanari zor dizugun azalpena eman gabe. Bazkietza abuztuan kobratzekotan baginen ere, arazo batzuk izan ditugu eta oraintxe

gauzatzera goaz kobrate hauek. Jakin badakigu hau ez dela batere serioa gure aldetik eta zuzendu beharreko gauza dela. Barkatu eragozpenak eta hurrengorako txukunago ibiltzen saiatuko gara.

Bestetik, gure denboraldi berria hasi den honetan, "fitxaketa" berriak egiteko prest gaude beti bezala. Badakizu non gauden eta gure proiektu hau bideratzen lagundu nahi badiguzu, gure egoitzako ateak zabalik dituzu. Futbol munduan mugitzen den dirutza eskaintzeko moduan ez gaudela badakizu, baina ideiak, proposamenak... guztiak gustura hartuko ditugu. Egin dezagun guztion artean gure-gurea den Noaua!

NOAUA!ko ORDUTEGIA

Goizez;
10:00etatik
14:00etara
Arratsaldez;
16:00etatik
20:00etara

Barkatu eragozpenak!



Noaua! txoko guztietara iritsi da aurten ere

Gure aldizkari txikia famatu egingo dute usurbildarrek. Izan ere, herria maitea izan arren, asko dira uda garaian urrutiko aldera joaten direnak. Eulali Apeztegi ere animatu da eta aurten hilabetez izan da Estatu Batuetan galdurik. Baina ez pentsa bakarrik joan denik, argazkian hala azaldu arren, izan du nork lagundu.

Gustura ibili da Usurbilgo talde txoa "yan-kien" artean, hala ere herria gogoan izateko Noaua! ere eraman dute erropa artean. Beraz, herriatik urrun izanda ere, herriaren zati garrantzitsua izan dute bidaiakide. Milesker!

USURBILGO OFIZIOAK ZURE ESKURA DITUZU

I geltseritza

URDANTZI

Mugikorra: 649435475
649435476
☎ 943 369370-361439

ERRAZKIN IGELTSERITZA OROKORRA

Kale Nagusia, 1
☎ 943 37 26 79 ☎ 36 51 25
Santuenea ☎ 629 42 05 65

JOSE AIZPURUA UNANUE Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea  Fatxadak konponketa
Pintore kalea, 1 - 3.A LASARTE-ORIA Tel.: 36 17 83
Mona Lurra, 20 - 1.B USURBIL Tel.: 943 36 37 67

JOSUE ARANTZISTROKI

Igeltseritza eta pintura
Juan Jose enea, 6
Kalezar
☎ 943 36 05 50- 606 37 21 05

A roztegiak

BEREZIARTUA

Egurrezko eta alumi-
nioegurrezko leihoak

Aginaga Telf: 943 37 15 71

JOSE RAMON IBARGOEN

Neurriko altzariak
Errotaberri kalea, 3 Osinalde
☎ 943 36 14 48 - 36 31 24

JOSE MARI IKUTZA

Ugarte, 4 Kalezar
Telf eta faxa: 943 37 12 21

I turgintza

IÑAKI LATAILLADE

Iturgintza gas eta berogintza
INSTALAKUNTZAK
Mobila: 609 888021

Iturgintza - Gasa - Berokuntza
 
J. Orbegozo
Bizkarra 1, 1. esk. ☎ 37 29 37 - 36 59 26

JOSEBA ARANGUREN

☎ 943 36 43 64

Iñaki Iturgintza

- Iturgintza orokorrean
 - Berokuntzak
 - Gasa
- Mobila: 600 024 825

E skaiola

JOSE ANTONIO ELORZA

Galtzaragaina 2-2B
TELF 943 37 34 70

Pinturak

FERNANDO PINTURAK

Enpapelaketak eta pinturak
orokorrean

Telf: 943 36 60 19- 36 34 60



RAMON BARCENILLA

- . Pikor pintura eta gotele lanak
- . Papereztatze- lanak
- . Pintura-lanak orohar

Mobila: 629 46 09 66

Pinturas Ion

943 83 09 37 ☎ 670 397504

E lektrizitatea

MIKEL IZAGIRRE

Goiz-Arri etxea, 37
Kalezar
Telf: 943 36 50 95

Gida honetan azaldu
nahi baduzu,
deitu!
943 36 03 21
telefonora